



**A**ñanako Gatz Haranak mendeetako historia eta paisaia aberastasuna gordetzen ditu harmonia osoz, gatz larrainen zurtasun distiratsuaren azpian. Horri esker, Euskadiko turismoko erreferenteetako bat eta aire zabaleko monumentu garrantzitsuenetako bat bihurtu da. Are gehiago, Europako pasaiarik ikusgarrienetakoa eta ondoen artatuenetako bat dela esan genezake. Ekosistema berezi hau Muera ibaiaren uraz elikatzen da. Ibai honek, egurrezko ubideen sare handi baten bidez, gatz larrainak apurka-apurka berreskuratu eta zaindu dituen terraza pintoreskoak marraztu ditu.

Gatzak sortutako aberastasunaz gain, hiribildu honen ondare arkeologiko eta etnografikoa nabaria da, Arabako zaharrena, hain zuzen ere. Erdi Aroko aztarnen eta iragan tenplario bateko oroitzapen gozoen babeslekua da, egun Done Joan Akrekoaren errege monasterioan ikus daitekeen bezala.

Ia 10 kilometro dituen ibilbide honek Arabako ondare natural eta paisajistikoaren beste harribitxi bat ere erakutsiko ditu: Caicedo Yusoko aintzira edo Arreo, Euskadiko aintzira natural bakarra. Ramsar hitzarmenean Nazioarteko Garrantzizko Hezegune gisa ageri da, eta, horrek, nola ez, duen aberastasuna islatzen du.



0 km

Gure abialekua hirigunean kokatzen da, gatzagetara ematen duen aparkalekuan, Palacio de los Ozpinas jatetxearen parean. Hortik errepidea hartuko du, Espejorantz.



**Kontuz!** Errepide zati honetan trafiko handirik ez badago ere, oso bide estua da.

0,1 km

Ezkerraldean eliza dugu. Eliza pasatu eta berehala errepidetik irtengo gara, ezkerrera, eta elizaren horma inguratzen duen bidea hartuko dugu, gatzagetaraino joateko. GR-1ean gaude.

0,2 km

Eskuinera joko dugu, egurrezko pasabide txiki bat zeharkatzeko. Erreka batetik pasatuko gara. Ondoren, gatzagak inguratzen dituen bidetik igoko gara, gure ezkerrera.



*Tarte hau bat dator Añanako gatz haraneko ibilbide berdearekin eta ○○○ GR-1 ○○○ delakoarekin Fontecharantz.*

0,6 km

Bidegurutzea. Ezkerretik jarraituko dugu, betiere GR-1eko lerro gorri eta zuriak jarraituz. Tarte honetatik aurrera, larrainen gainean baitago, Gatz Haranaren ikuspegi ederrez gozatu ahalko dugu. Bideak gora eta behera egiten du ibilbidearen zati honetan, suabe-suabe.

1,2 km

Bidegurutzea. GR-1eko argibideak jarraituko ditugu eta eskuineko bidea hartuko dugu.



*Ezkerreko bidea Done Joan Akrekoaren Komendadoreen monasterioan amaitzen da.*

1,6 km

Bidegurutzea. Esquinera bira egin eta legarrezko bide batera sartuko gara.

2,1 km

Ibilbideko puntu horretan, ezkerretara hartuko dugu, eta SLA-35 bidezidorraren norabideari jarraituko diogu. Ibairantz hurbilduko gara, eta aurrera egingo dugu, basoaren eta soro landuen artean.

3,3 km



Errepidea gurutzatuko dugu eta bidean aurrera jarraituko dugu.

**Kontuan hartu:** Caicedo Yuso - Arreoko aintzira inguratzeko duen tartea hasiko dugu, zailtasun apur bat duena. Tarte hau saihestu nahi baduzu, hartu ezkerreko bidea eta geroago elkartuko zara ibilbide honekin, 4,6 puntu kilometrikoan.



Aintzirako Andra Mariaren ermita.

## CAICEDO YUSO - ARREOKO AINTZIRAREN KONDAIRA

Inguru hauetan esaten dutenez, orain Caicedo Yuso - Arreoko aintzira dagoen tokian benta bat zegoen, eta behin emakume bat eskean iritsi zen haur batekin. Bentaren jabeak labera masa apur bat sartzeko agindu zuen. Ogia labetik atera zutenean, hala ere, ogia handi-handi zegoen. Limosna gehiegi zela pentsatuta, jabeak berriz egiteko agindu zuen, baina oraingoan masa gutxiago jarrita. Berriz gertatu zen gauza bera. Eta baita beste behin ere. Jabeak, haserre, eskalea kanporatzeko agindu zuen. Neskameetako batek bere janaririk ogi zati bat eman zion emakumeari eta azken honek laguntzeko gonbita egin zion. Neskameak kasu egin zion eta, oinez zihoazen bitartean, eskalearen arropa zaharrak jantzi eder bihurtzen hasi zirela ikusi zuen. Emakume hura Ama Birjina bera zela ikusita, belaukatu egin zen eta, une horretan, trumoi izugarri bat entzun zuen. Benta desagertu egin zen eta haren lekuan aintzira agertu zen.

## CAICEDO YUSO-ARREOKO AINTZIRA: HEGAZTI MIGRATZAILEEN GELDILEKUA ETA OSTATUA



**H**edadura xumeak engainatu egin gaitzake. Hainbat akuiferoren bidez elikatzen den aintzira natural honek 25 metro inguruko sakonera dauka eta uretako hegazti, anfibio eta hegazti migratzaile ugari urmael hau aukeratzen dute geldialdirako. Biodibertsitate aberatsaz gain, aintzira honek oso pasaia ederra eskaintzen du. Baso trinko bat du alboan, inguruan dauden labore sail ugariekin kontrastea eginez.

**Caicedo Yuso - Arreoko aintzira** Nazioarteko Garrantzizko Hezeguneen Ramsar zerrendan sartzen da eta Natura 2000 Sarean biodibertsitatea zaintzeko leku interesgarri gisa aitortuta dago.





3,4 km

Aintzirara iritsi eta eskuinera bira egingo dugu. Hurrengo 300 metroetan aurrera egiteko teknika apur bat beharko da. Oso gogorra iruditzen bazaizu, oinez egin itzazu metro hauek.



*Caiceo Yuso - Arreoko aintziraren inguruan hainbat kartel daude eta eskala esanguratsu honek hegazti migratzaileentzako duen garrantziari buruzko informazioa jasotzen dute.*

4,3 km

Aintzira gure ezker aldean utzi eta bidegurutze batera iritsiko gara. Ezkerrera bira egin eta GR-1 atzean utziko dugu. Arreo herrirantz doan errepidea hartuko dugu.

5,2 km

Ezkerrera bira egingo dugu. Gure eskuinaldean Aintzirako Andra Mariaren ermita ikusiko dugu.



## GESALTZA AÑANA


Ur gaziko iturburuaren inguruko lehenengo populazio aztarnak **duela 5.000 urte inguruan** kokatzen diren arren, Añanako gatzagak Erromatarren garaitik ustiatzen dira eta aberastasun iturri nabarmena izan ziren Erdi Aroan. 1.114. urte inguruan, Alfontso I.a Borrokalariak Euskadiko lehenengo errege forua eman zion haranari.

Haran honek, **monumentu historiko aitortu** denak, 5.000 larrain inguru izan zituen bere une gorenean. Horietako asko guztiz hondatuta daude, XX. mendearen zati handi batean ahaztuta egon baitira. Hala ere, **Añanako Gatz Harana fundazioak** zuzendu duen zaharberritze plan eskuzabal bati esker, haranak interes turistikoa eta etnografikoa berreskuratu du.




## GUNE TENPLARIOA

Erdi Aroko aztarnen artapen bikainaz eta Gatz Haranaz gain, Gesaltza Añanan zaldun tenplarioekin lotutako monasterioetako bat dago, diotenez Estatuko zaharrena. **Done Joan Akrekoaren Ahizpa Komendadoreen monasterioa** XIV. mendean eraiki zen, antzinako komentuen gainean. Añanakoaz gain, egun beste lau monasterio baino ez daude Estatuan "Jerusalemeko" Done Joani eskainiak: Bartzelona, Sigena, Gandia eta Zamoran. XIX. mendean, **Maltako Ordenak** monasterio honen gainean zeukan jurisdikzioa Gasteizko gotzainari eskualdatu zion Pio IX.a Aita Santuak. Tradizioaren arabera, monasterioa baino lehen, Gesaltzan zaldun ospitalarien beste monasterio bat zegoen, Real kalean, eta XX. mendearen erdira arte egon zen martxan.

6 km	Eskuinera bira egingo dugu, lehengo bidera bueltatzeko.
7,4 km	Ezkerrera bira egingo dugu GR-1eko bidetik, lehen etorri garenetik, hain zuzen ere.
7,9 km	Zuzen jarraituko dugu Done Joan Akrekoaren monasteriorantz, Añanako Gatz Haraneko ibilbide berdetik.
8,1 km	Ezkerraldean dagoen behatokitik pasatuko gara.
8,5 km	Errepidera sartuko gara, norabide berean.
8,8 km	 <b>Kontuz! Bidegurutzea.</b> Errepidera sartuko gara, ezkerrera.
9,2 km	Amaitu dugu. Azken puntua: aparkalekua.

## IBILBIDEAREN PROFILA



## LEKU INTERESGARRIAK



### NATURA ETA PAISAIA

1. Caicedo Yuso - Arreoko aintzira
2. Gatz Harana

#### Inguruan:

- Valderejoko parke naturala
- Fontechako garriga



### KULTURA

1. Aintzirako Andra Mariaren ermita
2. Done Joan Akrekoaren Komendadoreen errege monasterioa (Gesaltza Añana)
3. Gatz larrainak (Gesaltza Añana)
4. Ozpínastarren jauretxea (Gesaltza Añana)
5. Zanbrana - Herrandarren jauregia (Gesaltza Añana)

#### Inguruan:

- Baronatarren dorretxea (Villanañe)
- Tuestako eliza erromanikoa
- Angostoko santutegia
- Uraren museoa Sobronen




### AISIALDIRAKO GUNEA

1. Angostoko parkea
2. Espejoko parkea
3. Ebroko hezkuntza parkea Sobronen



## MAPA



## FITXA TEKNIKOA

<b>Nola heldu:</b>	Gesaltza Añanatik, A-2622
<b>Distantzia, guztira:</b>	9,2 kilometro
<b>Iraupena, gutxi gorabehera:</b>	1,5 hora
<b>Zailtasuna:</b>	Ertaina
<b>Gomendatutako bizikleta:</b>	BTTa
<b>Desnibel metatua:</b>	250 metro

## EZ GERATU IKUSI GABE...



### GATZ SPA AIRE ZABALEAN

Azken urteetan Gatz Haranean ospe handienetakoa izan duen kokalekua, zalantzarik gabe, aire zabaleko gatz "spa" izan da. Gatzagak bisitatzen badituzu, esku eta oinak bainatzearen esperientzia probatu behar duzu. Azterketa zientifikoan arabera, haraneko iturburuetako ur hipergazietan bainatzeak abantaila terapeutikoak ditu (kontuan hartu gatz maila 240 gramo ingurukoa dela litroko). Hala, odolaren zirkulazioa hobetzen du, azala birmineralizatzen du eta ehunen elastikotasuna indartzen du, beste abantaila batzuen artean. Probatu nahi baduzu, ez duzu zertan aurretik hitzordua eskatu. Informazio gehiago: [www.vallesalado.com](http://www.vallesalado.com)

### GR-1, BIDEZIDOR HISTORIKOA

Ibilbide honen zati handiena bat dator edertasun handienetakoa duen ibilbide luzeetako zati batekin. GR-1ari buruz hari gara, bidezidor historikoa ere deitua. Ibilbide hau **Ampuriasko** aurretian hasten da, Costa Brava erdian, eta Penintsularen iparraldeko beste puntan amaitzen da, **Finisterren**.

Araban honako udalerririk zeharkatzen ditu: Santikurutze Kanpezu, Antoñana, Bujanda, Durruma Kanpezu, Bernedo, Lagran, Pipaon, Urizaharra, Bergantzu, Berantevilla, Armiñon, Quintanilla de la Ribera, Saratsu, Fontecha, Gesaltza Añana, Espejo, Uribarri Gaubea eta Boveda.